

## **BALIABIDEAK**

Bezeroengana denda fisiko bidez iritsiko gara eta denda desberdin ugarietan salduko dugu, adibidez Media Mark, gure marka saltzen den leku guztietan gure gailua eskuragarri izango da, kasu honetan gure marka bereko hozkailuak salduko ditugu eta horiek barnean gailua izango dute eskuragarri baina baita ere gailua bakarrik erosi ahal izango da.

Gure produktua ikusgarriagoa izateko web gune bat izango dugu, gure produktuaren ezaugarriak, prezioak, bezeroak dituen galderak erantzuteko lekua... internet bidez egingo dugu, uste dugulako bizi garen garaietan jendeak arreta gehiago jartzen diolako ordenagailuan ateratzen zaien beherapen eta produktuei etxera iristen diren propagandei baino, eta honen atzetik ere gure helburu nagusia kostuak murriztea delako, kasu honetan propaganda egiten ez dugu dirurik xahutuko.

Gure kasuan, iraunkortasuna edukiko du. Hau da, produktu honek ez du lehiakiderik izango eta ahalik eta gehien iraun dezan ahaleginduko gara, gailuak bi urteko bermea izango du arazorik izan ezker. Ala eta guztiz ere gailuak porrot egiten badu ez du kostu handirik izango konpontzeak, hurbilen duzun teknikariari deituz egunean bertan, zure etxera joan eta konpondu egingo luke.